

---

PRENTSA OHARRA

## IAGOPA MOLYREN 'ROJO, BLANCO, ETC.' PROPOSAMEN ARTISTIKOAK BILBAOARTEKO EGOITZAREN FATXADA BERRITUKO DU

- **Profesionalez osatutako epaimahai batek aukeratu du proposamena, maiatzaren 11tik 20ra bitartean egoitzako Kristalezko Patioan erakutsi ziren hamar finalisten artean, herri-bozketan kontuan hartuz.**
- **Diseinu berriak BilbaoArte produkzio-zentro moderno gisa identifikatzea ahalbidetuko du, Urazurrutia kaleari kolore ukitu bat emateaz gain.**

*(Bilbo, 2022ko maiatzak 25).* – Iagoba Moly diseinatzailearen '*Rajo, blanco, etc.*', proposamenak **irabazi du BilbaoArte Fundazioaren egoitzaren fatxada nagusia berritzeko ideien lehiaketan, Bilboko Udalaren arte garaikideko zentroa dena.**

Hautatutako ideia fatxadako harlanduak margotzeaz baliatzen da degradatuak eta kolore-eskalak sortzeko. Alberto Corazonek diseinatutako BilbaoArteren logoaren kolore bereizgarrienak nabarmentzen dira, erakusketa-aretoko sarrera fundazioaren eta Bilboko Udalaren logoen kolore gorri bereizgarrian estaliko delarik.

Egilearen hitzetan, "*Rajo, blanco, etc. (Gorria, zuria, eta abar)* proiektuak, *BilbaoArte Fundazioaren fatxada pinturaz apaintzeko asmoa du, egungo erabilerara hobeto egokitu dadin, **itxura esperimentalagoa eta artistikoagoa emanez, baina eraikinaren fatxada neoklasikoa erabat ezabatu gabe.** Horretarako, Gregorio de Ibarretxe Ugarteren eraikineko elementu apaingarri eta arkitektonikoekin jolastu dut*".

6.000 euroko saria merezi duen proposamen artistikoa hainbat arlotako **profesionalek osatutako epaimahai batek** aukeratu du: Fundazioaren patronatuak, Surbisak, BilbaoArte, Bilbo Zaharreko auzo elkarteak eta artista batek osatutakoa, alegia. Azken erabakia hartzeko, herritarren bozketaren emaitza hartu da kontuan. Bertan, proposamen hori eta beste bat ziren faborito, eta irabazlea epaimahai bakoitzeko banakako bozketan boto gehien jaso dituen izan da.

Parte hartu duten **34 proposamenen artean, askotariko diseinu eta kolore-paleten artean, finalistak honako hamar proposamen hauek izan dira:** Iagoba Molyren '*Rajo, blanco, etc.*', Manu Arreguiaren '*Reflejos recibidos desde la acera de enfrente*', Esteban



Torresen *'El orden verbal'*, Guillermo Melgosaren *'Reacondicionamiento de fachada'*, Javier Rodríguezen *'43.25288, 2.92301'*, Fermín Morenoren *'CMYK'*, Maite Choya eta Daniel Alegreteren *'Esekitoki'*, Iván Beltránen *'Flysch'*, eta Leire Zabalaren *'BilbaoArteina azalean'* eta *'All Iron'*.

Azkenik, **proiektua enpresa profesional espezializatu batek gauzatuko du**, betiere artista egileek ikuskatuta.

#### **SARE SOZIALAK:**

- **BILBAO UDALA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)
- **BILBAO KULTURA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)
- **BILBAOARTE:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)

---

NOTA DE PRENSA

## LA PROPUESTA ARTÍSTICA DE ‘ROJO, BLANCO, ETC.’ DE IAGOBÀ MOLY RENOVARÁ LA FACHADA DE LA SEDE DE BILBAOARTE

- La propuesta ha sido elegida por un jurado de profesionales entre las diez finalistas que fueron expuestas en el Patio de Cristal de la sede entre el 11 y el 20 de mayo contando con la votación popular.
- El nuevo diseño permitirá identificar BilbaoArte con su función de centro de producción moderno dando un toque de color a la calle Urazurrutia.

*(Bilbao, a 25 de mayo de 2022).* – La propuesta ‘*Rojo, blanco, etc.*’, del diseñador Iagoba Moly, ha sido la **ganadora del concurso de ideas para la renovación de la fachada principal de la sede de la Fundación BilbaoArte Fundazioa, centro de arte contemporáneo del Ayuntamiento de Bilbao.**

La idea seleccionada se vale del pintado de los sillares de la fachada para generar degradados y escalas de color. Destacan sobre todo los colores más identificativos del logo de BilbaoArte, diseñado por Alberto Corazón, quedando la entrada de la sala de exposiciones bañada en el característico color rojo del logo de la fundación y del Ayuntamiento de Bilbao.

En palabras de su autor, “*Rojo, blanco, etc. tiene la intención de decorar pictóricamente la fachada de la Fundación BilbaoArte Fundazioa para que se adecue mejor a su uso actual, **dándole un aire más experimental y artístico, pero sin borrar completamente la fachada neoclásica del edificio.** Para ello he jugado con los elementos decorativos y arquitectónicos del edificio de Gregorio de Ibarretxe Ugarte*”.

La propuesta artística merecedora del premio de 6.000 euros ha sido seleccionada por un **jurado conformado por profesionales** de diferentes ámbitos: del patronato de la Fundación, de Surbisa, de BilbaoArte, de la asociación de vecinos/as de Bilbao La Vieja y un/a artista. Para la toma de la decisión final se ha tenido en cuenta el resultado de la **votación ciudadana**, que valoraba esta propuesta junto a otra como las favoritas, quedando la ganadora como la más votada en la votación individual de cada jurado.



Entre las **34 propuestas participantes**, de diseños muy diversos y gran variedad de paletas de color, las diez propuestas finalistas han sido: *'Rojo, blanco, etc.'* de Iago Moly, *'Reflejos recibidos desde la acera de enfrente'* de Manu Arregui, *'El orden verbal'* de Esteban Torres, *'Reacondicionamiento de fachada'* de Guillermo Melgosa, *'43.25288, 2.92301'* de Javier Rodríguez, *'CMYK'* de Fermín Moreno, *'Esekitoki'* de Maite Choya y Daniel Alegrete, *'Flysch'* de Iván Beltrán, y *'BilbaoArteina azalean'* y *'All Iron'* de Leire Zabala.

La materialización del proyecto será llevada a cabo por una empresa profesional especializada, siempre bajo la supervisión de su o sus autores/as artistas.

#### **REDES SOCIALES:**

- **BILBAO UDALA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)
- **BILBAO KULTURA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)
- **BILBAOARTE:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)